

Kaixo:

Lehenik eta behin, idatzi honen gaia aurkeztu nahiko genuke: Oreretan dagoen ikasgela eta horren ordutegia. Azterketa garaiak agerian utzi du Oreretako egungo egoerari buelta pare bat emateko beharra, edo hala bizi izan dugu herriko ikasle askok.

Gaur egun, herrian, ikasleku bezala, Lekuona fabrika dago. Gabonaldi hauetan, bai isiltasun gela (48 plaza) eta kanpoko gunea beteta egon dira, ia ia irekitzetik itxiera arte. Hortaz, ikasgela zerbitzua benetan erabilgarria dela uste dugu, eta jendeak eskertzen duen zerbait dela.

Arazoa, eta idatzi honen arrazoiak, Lekuonaren ordutegia da (astelehenetatik ostiralera 9:00etatik 20:00etara, baita larunbat goizetan ere). Ikasle askok, gure artean hitz eginda, ikusi dugu badagoela nahi eta eskari bat ordutegia luzatzeko, bai larunbat arratsaldetan, bai jai egun bezperetan eta bai jai egunetan.

Ikasle gehienontzat, asteburuak eta jai egunak ikasteko erabiltzea ezinbestekoa da, bereziki azterketa garaian, denbora libre gehiago izaten baitugu. Hala ere, kontziente gara langileen atsedeen egunak errespetatu behar direla, baina horretan ere pentsatu dugu.

Oiartzungo kasua etortzen zaigu burura, non liburutegi osoa ez, baina gelatxo bat egunero irekia dagoen 9:00etatik 22:00etara, jai egunak barne. Gela horretan, ez da zaindaririk egoten, eta jendea errespetuz aritzen da, hau da, erabilpen ona ematen zaio. Oiartzungo gela horretan, ikusi dugu oarsoaldeako ikasle asko biltzen garela, eta oso handia ez denez, nahikoa ez dela.

Gainera, atzera begiratzuz, Oreretan ere, Reina aretoa irekia egon izan da azterketa garaian, antzeko helburu batekin, nahiz eta hor zaindaria egoten zen. Beraz, Lekuona fabrika osoa irekitzea zaila izan daitekeen arren, horrelako gelatxoren batek ondo funtzionatu lezake.

Amaitzeko, idatzi honen eskaria ez da zerbait itxia eta behin betikoa, eztabaidatzeko prest gaude, baina uste dugu ikasleon mesederako izango diren hobekuntza batzuk egitea ez dela zaila, eta egingarria ikusten dugu.

Eskerrik asko aldez aurretik, zuen erantzunaren zain geratzen gara.

Oreretako ikasle talde bat.